

Topalekua

68zk. 2011ko uztaila

julio 2011 - n.º 68

orr. 1 eta 2: Datorren urterako EHU-ren eskaintzan 3 gradu eta 12 master ezartzea onartu du Gizarte-Kontseiluak

orr. 3 eta 4: EHU-n titulaturako pertsonen ia % 80ak lana zuen ikasketa bukatu eta sei hilabetera

DATORREN URTERAKO EHU-REN ESKAINTZAN 3 GRADU ETA 12 MASTER EZARTZEA ONARTU DU GIZARTE-KONTSEILUAK

Pasa den uztailaren 13an Bilbon egin zen EHU-ren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari 3 gradu-titulazio eta 13 master ofizial berri ezartzea proposatu zitzaion; horrekin, 2011-2012 ikasturterako euskal unibertsitate publikoaren eskaintza 102 unibertsitate-masterrekoa eta 69 gradukoa izango da.

Gizarte Kontseiluak onartutako gradu-titulu berriak Fisioterapia, Energia Berriztagarrien Ingeniaritza eta Arkitekturaren Oinarriak dira. Azken horrek orain arte irakasten zen Arkitekturako Gradua ordeztzen du, EDU/2075/2010 Ministerio Aginduan xedatutakora doitzeko. Horretan, arkitekto-lanbidean jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialeterako baldintzak ezartzen dira. EHU-n ezartzekoa den Arkitekturaren Oinarrien Gradu berria 300 kredituz osatuta dago eta ez ditu atribuzio profesionalak ematen.

Gradu osteko 12 master ofizial berriei dagokienez, orotariko ezagutza-arloak barne hartzen dituzte, hala nola: egungo artea kontserbatzea, ikertzea eta erakustea; zeramika; sektore turistikoko diseinua; mundu klasikoa; eredugintza konputazionala; hezkuntzako hizkuntza-aniztasuna ikertzea; lengoaiaren neurozientzia kognitiboa; enpresa-abokatutza; ingeniariitza fisikoa; integrazio politikoa eta batasun ekonomikoa Europar Batasunean; edo material berriztagarrien ingeniariitza. Master berrietako lau unibertsitate artekoak dira eta horietako bi atzerriko unibertsitateekin antolatzen dira.

Halaber, Osoko Bilkurak berezko 42 tituluren matrikula-prezioak ere finkatu zituen eta erabaki zuen, gehienek (zehazki, 27k) aurreko ikasturteko tasak mantenduko

dituztela eta beste zortzik, berriz, prezioak igoko dituztela. Gainerako 7 tituluak berriki sortu dira eta honako prezio hauek izango dituzte:

GRADU OSTEKO BEREZKO TITULUA	Prezioa, kredituko
Zaintza aringarrietako arreta integrala	100,00 euro
Minaren diziplina arteko ikerketa eta tratamendua	90,00 euro
Komunikazio korporatiboa	55,00 euro
Txinatar Ikasketak	125,00 euro
Nazioarteko negozioak	74,00 euro
Paisaiaren planifikazioa eta arkitektura	120,00 euro
Segurtasunaren eta larrialdien kudeaketa	15,00 euro

Horren harira, Kontseiluak ikasketa osagarrien hiru ikastaroren matrikula-prezioak ere finkatu zituen: “Emulsion Polymerization Processes” (471,70 euro); “CAD/CAE. Ingeniaritza, kalkulu eta elementu infinituen bidezko simulazio numerikoko ikastaro aurreratua” (35,00 euro/kreditu); eta “Ordenagailuz lagundutako diseinu- eta fabrikazio-ingeniaritza” (60,00 euro/kreditu).

Lankidetzak-bekak

Halaber, Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak deitutako lankidetzak-bekak banatzeko irizpideak unibertsitateko sailen arabera adostu zituen. Banaketa hori egiteko, kontuan hartuko dira ikasle eskatzaileek espediente akademikoan lortutako puntuak (% 70) eta lankidetzan aritzea eskatzen duen unibertsitate-sailaren ekoizpen zientifikoko baremoen aplikazioak ezarritako ordena, G9 Unibertsitate Taldeak onartu bezala (% 30).

Euskampus Fundazioan parte hartzea

Azkenik, Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Euskal Herriko Unibertsitateak Euskampus Fundazioan parte hartzea onartu zuen berebiziko pieza delako 2010eko urrian, EHUren nazioarteko batzorde bat Nazioarteko Bikaintasuneko Campus izendatu zenean Hezkuntza

Ministerioaren deialdiaren barruan, martxan jarri zen CEI proiektua garatzeko.

CEI gisa bereizten diren unibertsitateentzako Ministerioak emandako funtsetako 5 milioi euroko aurrekontuarekin, Euskampus Fundazioak Parke Zientifikoan Biofisika Zentroa eraikitzen parte hartuko du eta oso jarduera garrantzitsuak garatuko ditu, hala nola mugaz gaindiko campusa finkatzea Bordeleko Unibertsitatearekin, proiektua nazioartean sustatzea sareak sortuz, edo mugikortasuna eta ekimenak sustatzea. Ez da ahaztu behar ikerketa kooperatiboaren sustapena eta Euskampus sareko eragileen berrikuntza.

Azkenik, Lanbidek 2007ko promozioari dagokion *EHU-ko tituludunak Bizitza Aktibora Igarotzeari buruzko azterketa* aurkeztu zuen Behatoki hori Gizarte Kontseiluak sustatu du eta jadanik unibertsitate-tituludunen hamar promozio aztertu ditu. Horri esker, Unibertsitateak eskaintzen duen zerbitzu publikoa hobetzeko balio dezaketen lan-merkatuari buruzko datu fidagarri, kontrastagarri eta aztergarriak lortu dira. Aipatu azterketaren datu nagusiak xehetasunez azaltzen dira Topaleku honen beraren beste artikulua batean eta azterketa osoa Kontseiluaren web gunean kontsulta daiteke: www.gizartekontseilua.com.



EHU-N TITULATUTAKO PERTSONEN IA % 80AK LANA ZUEN IKASKETA BUKATU ETA SEI HILABETERA

José Manuel de la Sen Gizarte Kontseiluaren presidentea “*tituludunen laneratze-maila altuarekin eta horiek EHU-ri buruz egunetik egunera egiten duten balorazio orokor gero eta positiboagoarekin oso pozik*” agertu da, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburu Gemma Zabaletarekin eta EHU-ko Errektore Iñaki Goiricelaiarekin batera “*EHU-ko unibertsitate-tituludunen bizitza aktiborako txertaketaren azterketa. 2007ko promozioa*” azterketaren emaitzak aurkeztu dituenean. Azterketa hori Lanbidek egin du urte horretan titulua eskuratutako 5.667 pertsonarekin eta agerian uzten du horien % 79,2k lana lortu zutela ikasketak bukatu eta sei hilabeteko epean. Halaber, horietako % 87k zuzenean haien prestakuntzari loturiko lanpostuak eskuratu zituzten.

Hau azterketa hori egin den hamargarren aldia da eta, Gizarte Kontseiluaren Presidentearen ustez, “*Euskal Herriko Unibertsitateak maila guztietan oso eboluzio ona duela, egunetik egunera bezeroaren (euskal gizartearen) beharrak hobeto asetzen dituela eta kalitatezko prestakuntza eskaintzen duela*” baieztatu ahal izateko beharrezko oinarria eskaintzen du. De la Senek gogorarazi du “*oso garrantzitsua dela gizarteak, enpresek eta unibertsitateak batera lan egitea, tituludunei lan-mundurako igarobide bizkor, erraz eta zuzena bermatuko dizkieten lotura sendoak ezarriko badira*”.

Jarduera-tasa	%92,5	%92,8
Enplegu-tasa	%80,4	%79,2
Langabezia-tasa	%13,1	%14,7
Karrera amaitu eta 1. enplegu arteko denbora (hilak batez bes.)	7	6
1. enplegu bilatzeko denbora (hilak batez beste)	4	4
Lan-esperientzia duen biztanleria aktiboaren %	%95	%96
Enplegua aurkitzeko bideak		
Inguru soziala (familia, lagunak, sare pertsonala, profesionala...)	%21	%20
Auto-haugaraitza (kurrikuluma aurkezte, prentsa-iragarkiak...)	%24	%21
Internet	%16	%16
Oposaketak eta enplegu-publikoko poltsak	%16	%16
Unibertsitatea, praktikak enpresetan	%13	%14
Autoenplegua	%3	%4

Bestalde, Gemma Zabaleta sailburuak nabarmendu zuenarekin bat: “*euskal tituludunen laneratze maila altuak berretsi egiten du lan kualifikatuenean krisiaren efektuen aurrean hobeto erresistitzen dutela*”. Ideia horretan sakondu zuen Iñaki Goiricelaia errektoreak ere, baieztatu baitzuen “*zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago daudela lana aurkitzeko. Hori ez da zalantzan jartzen eta urtero berresten da ikasketa mota orotan*”.

Enplegua eskuratzeko bideei dagokienez, José Manuel de la Senek nabarmendu nahi izan zuen bi alderdi positibo eta hausnartzea komeni den bi alderdi hautematen zituela. Alde positiboan kokatu zuen kontaktu sozialengatiko laneratzeek behera egin dutela eta, horrekin bat, Internet bidezko laneratze “*demokratikoagoak*” gora egin dutela. Bestalde, enpresetako praktiken bidez laneratzean hauteman diren oztupoak eta tituludun berrien ekimen maila baxua nabarmendu ditu.

Datu nagusiak

Nahiz eta % 79,2ko enplegu-tasak 1,2 puntuko beherakada uzten duen agerian aurreko promozioiko datuekin

konparatuta, txostenak adierazten du unibertsitate-ikasketak bukatu eta lehen enplegua lortu bitarteko batez besteko denbora murriztu egin dela. 2007ko promozioaren kasuan, sei hilabetekoa da, hots, aurreko promozioarena baino hilabete gutxiago. Sexuaren arabera, diferentziak txikiak dira: gizonezkoek enplegu-tasa handiagoa dute (% 80,4 gizonek eta % 79,5 emakumeek) eta langabezia-maila baxuagoa dute (% 14,8 eta % 14,4).


Azterketak agerian uzten du arlo-enplegua mantendu egin dela eta % 87koa dela. Hau da, enplegua duten hamar unibertsitate-tituludunetik ia bederatzik beren maila akademikoarekin bat datorren lanpostua dute.

Lan egonkorren pisua (kontratu mugagabeak, autonomoak eta kooperatiba-sozioak) % 49koa da, guztizkoaren gainean; horrek esan nahi du lau puntuko beherakada egon dela aurreko azterketatik. Beren kontura lan egiten duten pertsonak alde batera utzita (langile autonomoak, enplegatzaileak eta kooperatiba-sozioak), kontratu finkoa duten soldatapeko pertsonak % 46 dira, hots, 2006ko promozioan baino hiru puntu gutxiago.

Diru-sarrerak

Diru-sarrerei dagokienez, hileko batez besteko garbia hileko 1.505 eurokoa da, urteko 14 ordainketatan eta

lanaldi osoan kalkulaturik. Gizonek hileko 1.583 euro jasotzen dituzte, batez bestez, eta emakumeek hileko 1.453 euro.

2007ko promozioaren enplegu-tasa 2010-IVan

Jarduera-tasa eta soldata altuenak Osasunaren esparruko titulazioetan (% 90) eta ikasketa Teknikoetan (% 83) aurkitu daitezke eta baxuenak, berriz, Humanitateen arloan (% 68). Nabarmenezkoa da lizentziaturek eta ziklo luzeko ingeniartzeak portaera hobea dutela diplomaturekin edo ingeniartza teknikoekin konparatuta.

2007ko promozioan lanean ari ziren lizentziadunen edo diplomatuen % 10,9 autonomia-erkidegotik kanpo ari da lanean. % 8,2 beste autonomia-erkidego batzuetara joan

da eta % 2,7, berriz, beste herrialde batzuetara, modu lehenetsian, Europara. Erasmus eta antzeko programek eta bestelako gradu osteko ikasketak egiteak (betiere, proiektzio profesional handiagoa izatera loturikoak) sustatu egiten dute mugikortasun hori. Horren harira, José Manuel de la Senek gogorarazi zuen, tituludunek beren ikasketen erabilgarritasunari buruz egiten duten balorazioa altua izan arren, “salbuespen bat dagoela: atzerriko hizkuntzen prestakuntza, zeina hobetu beharreko gaitasun profesionalaren berebiziko alderdi bat baita”.

Lan egiteko bizilekuz aldatu beharra